



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko abenduaren 19a

110. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Irunberriko Udala eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira legezkotasuna bete dezaten, Acciona-Windpower, S.A. enpresa jartzeko lursailak trukatzeari dagokionez. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan babesa eman diezaien Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre egite aldera sustatutako neurriei. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Diputatuen Kongresuak ikertzea eta argitzea CIAk Torrejónko, Rotako eta Moróngo baseak legez kanpo erabili izana presoak Guantanamo eramateko bidaietan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan egin “Reyno de Navarra Arena” izeneko kiroldegiaren obrak, eta obra horretarako aurreikusitako baliabideak gizarte-inbertsiora bidera ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Euskarabideak Nafarroako toponimiaren gainean duen eskumena eta eginkizuna Nafarroako administrazio publikoetan zeharkakotasunez betetze aldera ezarritako lan programari eta prozedurei buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak hartu edo hartuko dituen neurriei buruzkoa, Gipuzkoako Aldundiak iragarri baitu bidesaria jarriko duela N-1, A-15 eta N-121-A errepideetan, José María Vázquez Royo jaunak egina (9. or.).
- Galdera, debekualdia ezarri ondotik amurruin-populazioak izan duen bilakaerari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (10. or.).

- Galdera, Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, 2009rako opera programazioaren gaineko koordinazio ezari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Canal 4 Localia tokiko telebista ixteari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxoari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Urrobi ibaiko urek bainurako duten kalitatearen gainean aurkeztu den 2007ko txostenari. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Barne Ministerioarekin sinatutako protokoloa, espetxe berria eraikitzeari buruzko asmoen gainekoa, ez bidaltzearen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Azagrako saihezbidea eraikitze prozesua. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Mendabiako saihezbidea eraikitze prozesua. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, enpresa pribatuek kudeatzen dituzten udal zahar-etxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Menpekotasunari buruzko legearen aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Murchanten kiroldegi bat eraikitze laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Irunberriko Udala eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira legezkotasuna bete dezaten, Acciona-Windpower, S.A. enpresa jartzeko lursailak trukatzeari dagokionez.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Irunberriko Udala eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitira legezkotasuna bete dezaten, Acciona-Windpower, S.A. enpresa jartzeko lursailak trukatzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak eta Maiorga Ramírez Errok, Nafarroa Bai parlamentu-taldekoeledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

2008ko martxoaren 13an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsi zuen martxoaren 25eko Irunberriko Udalaren herri lurretako 180.425 metro koadro onura publikoko deklaratu eta haien desafektazioa onesten duen 5/2008 Foru Legea, ondoren lursail hori 84.644,53 metro koadroekin trukatzeko, herri horretan Acciona Windpower, S.A. enpresak aerosorgailuendako palen fabrika bat instalatu ahal izateko.

Aipatu 5/2008 Foru Legean ezartzen dira Irunberriko Udalak bete beharreko baldintzak desafektazio hori egin ahal izateko.

Halaber, foru lege horren 2. artikuluko b) idatzatian ezartzen da desafektazioak bete beharko du udalak 2007ko uztailaren 31n horretarako onetsi zuen baldintzen orria. Bada, orrien baldintzen orri hori ez da agertzen egun horretan Irunberriko Udalak eginiko osoko bilkuran, ez gai zerrendan, ez osoko bilkuraren aktan.

Era berean, lege horretan ezarri zen beharrezkoa zela jasotzea desafektaturiko lurzatiaren itzulgarritasuna, desafektazioa justifikatzen duen xedea desagertzen denean.

2008ko martxoaren 23an, Irunberriko Udalak eranskin bat onetsi zuen, udal horrek eta Acciona enpresak 2007ko apirilaren 27an sinatutako hitzarmena aldatzen zuena. Eranskinaren arabera, hamar urte igaro eta Acciona enpresak 110 lanpostu sortzeko baldintza bete ondoren, lurzatiak aipatu enpresaren jabetzan geratuko dira, itzulgarritasuna galduko dute eta udalak ezin izanen du inongo erreklamaziorik egin.

Hirugarrenik, foru legean ezartzen da Irunberriko Udalak 53.191 metro koadro eskuratuko dituela herri lurrei atxikitzeko, herri lurrek izandako ondare-galera konpentsatze aldera. Aurreko guztia ebatzi den arren, gaur egun baldintza hori ez da bete oraindik.

Irunberriko Udalak ez du nabarmen bete martxoaren 25eko 5/2008 Foru Legea, zeinaren bidez herri lurren zati bat desafektatzeko baimena ematen den, eta, ondarea galtzeko arriskua agerikoa denez, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Toki Administrazioiko Departamenduak

mentuaren bidez azter ditzan Irunberriko Udala-
ren jardueren legezkotasuna eta ofizioz jardun
dezan udal horrek herri lurren ondare-galtzea,
legea ez betetzea edota enpresa horren mesede-
tan aritzea dakarren administrazio egintzarik egin

baldin badu Acciona enpresa herrian instalatzeko
prozesuan.

Iruñean, 2008ko azaroaren 18an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta
eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkide- goan babesa eman diezaien Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre egite aldera sustatutako neurriei.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko
abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen
Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu
zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parla-
mento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturi-
ko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua
premiatzen baita gure erkidegoan babesa eman
diezaien Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari
aurre egite aldera sustatutako neurriei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-
an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta
zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari
ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko
hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-
mentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan
xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aur-
keztu du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua
premiatzen baita gure erkidegoan babes ditzan
Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre
egiteko bultzatu dituen neurriak, Parlamentuko
osoko bilkurak eztabaidatu eta onesteko.

Zioak: 2007ko udan Estatu Batuetan hasi zen
krisi ekonomikoa jada bilakatu da hamarkadatan
ezagutu dugun krisialdi ekonomiko global larriena.
Hasieran herrialde hartan zurrumbilo finantzario
gisa azalera zena konfiantza-haustura sakon
bilakatu da, eta horren ondorioek bete-betean
dute eragina mundu osoko milioika familia eta
enpresatan.

Ekonomia garatu gehienek beren barne pro-
dutu gordinaren uzkurdurak izan dituzte hiruga-
rren hiruhilekoan, hiruhileko batetik besterako kon-
parazioan. Bigarren hiruhilekoan, euroaren zonak,
bere osotasunean, hazkunde negatiboa izan
zuen, eta, horrenbestez, Europako zenbait herrial-
de atzeraldian sartu dira teknikoki. Azken hiruhile-
koan, Espainiaren hazkundera ere negatiboa izan
da lehenbizikoz.

Batez ere gure higiezinen sektorean gertatzen
ari den doikuntza gogorraren ondorioz, Espainia
bereziki ahula izaten ari da nazioarteko aurkako
testuinguru horretan, enpleguaren galerari dagoki-
onez, zeina gure erkidegoan zenbateko kezka ga-
rrietara iristen ari baita.

Hori dela eta, Gobernuak lehendakari José
Luis Zapaterok Espainiako Ekonomia eta Enple-
gua Suspertzeko Plana aurkeztu zuen Parlamen-
tuan. Plan horrek biltzen ditu gobernuak aplikatuko
dituen neurri ekonomiko, finantzario eta fiskalak,
hazkuntzaren eta enpleguaren sorkuntzaren bide-
ari berriz heltzeko.

Gure ustez, Gobernuak iragarritako planak,
2008tik hasita 2010era bitartean aplikatuko dena,
ekarriko du gobernu batek garai jakin batean inoiz
egin ez duen baliabide publikoen mobilizazioa,
ekonomiaren eta enpleguaren hazkuntza susta-
tzeko. Planak jasotzen ditu gobernuak aurten one-
tsitako neurriak; aldiz, planaren zatirik handiena
2009an aplikatuko da, eta bertan jasotzen diren
neurri finantzarioetako batzuk indarrean egonen
dira 2010 arte.

Plana lau ekintza-ardatz nagusitan oinarritzen
da: familientzako eta enpresentzako laguntza-neu-
rriak, enpleguaren aldeko laguntza-neurriak, siste-
ma finantzarioetako laguntza-neurriak eta ekonomi-
aren modernizazioa. Planean jasotzen dira jada

onetsitako neurriak, bai eta abian jarriko diren beste batzuk ere, eta, gainera, Espainiako ekonomiak aurre egin behar dien azpiegiturazko erreformak zehazten ditu. Neurri horiek guztiak prestatu dira kontuan hartuta Europar Batasunak eta G-20ko herrialdeek eta Espainiak iragan azaroaren 15ean Washingtonen eginiko goi bileran ezarritako irizpideak; izan ere, krisi finantzario globalaren konplexutasunak eskatzen du hartu beharreko neurrietako asko era koordinatuan abiaraztea munduko ekonomia nagusien artean. Agiriaren eta eginiko lanaren funtsezko oinarria da eragile sozialekin izandako etengabeko elkarrizketa. Gobernuarentzat, sindikatuen eta enpresaburuen erakundeen parte-hartze arduratsua ezinbesteko tresna da azken helburua lortzeko: jasaten ari garen krisi egoera gainditzea eta egoera honetatik herrialde modernoago eta lehiakorrago bat irtetea.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak ongi deritzo Espainiako Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Planak Foru Komunitateko ekonomian izan den eraginari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure erkidegoan babes ditzan Espainiako Gobernuak krisi ekonomikoari aurre egiteko bultzatu dituen neurriak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri berriak bultzatuz, Espainiako Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko Plana indartzeko eta osatzeko, eta erkidegoko baliabideak jar ditzan Mendekotasunari buruzko Legeak eskualdeak garatzeko egiten duen ahalegina indartzeko, gizartean baztertze-arriskuan dauden pertsonen edo taldeen laguntza ekonomikoa emateko eta Espainiako Gobernuak funts osagarri hornitu dituen sektore berariazkoak indartzeko, hala nola turismo soziala, I+G+B, etxebizitzaren birgaitzea edota ingurumenarekin loturiko jarduerak.

4. Nafarroako Parlamentuak bere babeseraz agertzen dio Espainiako Gobernuari, beharrezkoak diren ekimenak abian jar ditzan, familiei eta enpresei laguntzeko, enpleguaren sorkuntza bultzatzeko eta ekoizpen-eredua modernizatzeko, krisialdi ekonomikoa gainditze aldera.

Iruñean, 2008ko abenduaren 4an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Diputatuen Kongresuak ikertzea eta argitzea CIAk Torrejón, Rotako eta Morón baseak legez kanpo erabili izana presoak Guantánamo eramateko bidaietan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen baitu Diputatuen Kongresuak ikertzea eta argitzea CIAk Torrejón, Rotako eta Morón baseak legez kanpo erabili izana presoak Guantánamo eramateko bidaietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezian eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

2006ko apirilean, Diputatuen Kongresuko Kanpo Arazoetarako Batzordeak legeaz besteko proposamen bat onetsi zuen, zeinaren bidez Gobernuak premiari CIAn, zuzenean edo ezkutuko konpainia pribatuen bidez, Espainiako aireportuak legez kanpo erabili izanari buruzko ministerioarteko txosten xehakaturik igorri zezan Diputatuen Kongresura. Hala ere, Gobernuak ez du oraindik txosten hori igorri.

Harrezkero, gertaera berriak izan dira; esaterako: 2002ko urtarrilaren 10ean igorri zen eta "oso sekretua" deklaratu zen 3329/02 txostena argitaratu da. Haren bidez, Iparramerikarako Kanpo Politikako zuzendari nagusiak jakinarazi zien Kanpo Arazoetako ministroari eta Kanpo Arazoetako estatu idazkariari AEBtako Gobernuak premiazko baimena eskatu ziola Espainiako Gobernuari, Espainiako aireporturen bat erabiltzeko, ahal zela Morón eta Rota bezalako base militarrek, "preso talibanak eta Al-Qaidakoak Afganistandik Kubako Guantánamoko basera eramateko.

Gainera, 2002ko urtarrilaren 11n Defentsa Politikarako idazkari nagusiari igorritako gutun batean, Iparramerikarako Kanpo Politikako idazkari nagusiak berretsi zuen Defentsa ministroak eta idazkari nagusiak jakinarazi ziotela "agintari estatubatuarrei baietz erantzuteko aldekoak zirela." Halaber, hauxe esan zuen: "Informazio publikoaren ildoan, kazetarien balizko galderei erantzuteko, izan liteke ez dagoela aurreikusita hegaldi horiek geldialdirik egitea Espainiako lurraldean, baina larrialdiren bategatik lurreratzeko baimena eskatuko balute, eman egingen litzaieke".

Eta 2002ko urtarrilaren 11n igorritako informazio-ohar batean, Espainia eta Iparramerikako Batzorde Iraunkorreko Espainiako Ataleko lehendakariak ondokoa esan zuen: "Gure ustez, aireporturik zehurreratu Moróngo basekoa da, eta bestela Rotakoa." Halaber, aipatzen du: "Kontuan hartu behar da garraiatzen diren pertsonetakoren batek Europako nazionalitatea izan dezakeela eta horren legeko ondorioak aztertu behar dira".

Beraz, badirudi erantzukizun politiko argiak daudela hegaldi eta geldialdi horiek egiteko baimena emateari dagokionez, presoak, nazioarteko zuzenbidea kontuan hartu gabe, AEBek Guantán-

namon duten atxiloteta zentzura –Europar Batasunak hura ixteko eskatu du– eramateko.

Legez kanpoko jarduera horiek Espainiako ordenamendu juridikoa urratzen dute, eta, orobat, Torturaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa, Terrorismoaren aurkako borrokan atxilotutako pertsonen emateko beharrezko tratuari buruzko Genevako Konbentzioa eta Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutuko 7. artikulua.

Terrorismoaren aurkako borroka ez ditu balio demokratikoak eta giza eskubideak ahuldu behar.

Defentsa Ministerioaren datuen arabera, 2002ko maiatzaren 2aren eta 2006ko urriaren 13aren artean, egin ziren 11 geldialdi eta lurraldearen gaineko 13 hegaldi, Espainian geldialdia egin ez, Guantánamora bidean. Eta Europako Parlamentuak 2007ko otsailean onetsi zuen CIAko hegaldiei buruzko txostenean egiaztatu ziren, xehetasun osoz, 63 hegaldi eta 125 lurreratze eta aireeratze, Espainiako 10 aireportutan.

Ikusirik gertakari hauen larritasuna, ikuspuntu politikotik eta parlamentariotik, eta ezertan galaz gabe Auzitegi Nazionala CIAn hegaldiei buruz instruitzen ari den kausa, premiazkoa eta beharrezkoa da parlamentu-ikerketak egitea Espainiako Gobernuak legez kanpo bahu eta espetxeratutako pertsonen oinarritako giza eskubideak urratu dituzten ekintzetan izan duen parte-hartzeari buruz.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak ondoko erabaki proposamena onesten du:

1. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen du Diputatuen Kongresuak ikertzea eta argitzea Torrejón, Rota eta Moróngo baseen legez kanpoko erabilera, bai eta CIAk, zuzenean edota ezkutuko konpainia pribatuen bidez, Espainiako aireportu zibilak erabili izana, 2002tik 2008ra, biak barne, presoak Guantánamora eta beste toki batzuetara eramateko, eta, kasua bada, gertakari horietatik eratorritako erantzukizun politikoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiazkatzen du parlamentu-ikerketak babes dezan eta laguntza osoa eman dezan gertakariak argitze aldera.

3. Nafarroako Parlamentuaren erabaki hau ondokoei igorriko zaie:

Diputatuen Kongresuko lehendakariari.

Espainiako Gobernuko lehendakariari.

Iruñean, 2008ko abenduaren 10ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez ditzan egin “Reyno de Navarra Arena” izeneko kiroldegiaren obrak, eta obra horretarako aurreikusitako baliabideak gizarte-inbertsiora bidera ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez ditzan egin “Reyno de Navarra Arena” izeneko kiroldegiaren obrak, eta obra horretarako aurreikusitako baliabideak gizarte-inbertsiora bidera ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Bizi dugun atzeraldi ekonomikoko garai honetan, ez dirudi egokia denik, gastu publikoaren lehentasunak ezartzerakoan, “Reyno de Navarra Arena” izeneko kiroldegia eta Nafarroa 2012 Planean Sanferminen Museo gisa agertzen dena bezalako eraikinak egitea.

Gaur egungo egoeran, baliabide publiko horiek hobeto erabilita egongo lirateke egiazki lehentasuna duen gizarte-inbertsiora bideratuko balira (hez-kuntza, osasun arloa, mendekotasuna...).

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez ditzan egin, Nafarroa 2012 Planean aurreikusita badaude ere, “Reyno de Navarra Arena” izeneko kiroldegiaren obrak, eta obra horretarako aurreikusitako baliabideak gizarte-inbertsiora bidera ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ez ditzan egin, Nafarroa 2012 Planean aurreikusita badaude ere, Sanferminen Museoko obrak, eta obra horretarako aurreikusitako baliabideak gizarte-inbertsiora bidera ditzan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 11n

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

F saila:
GALDERAK

Galdera, Euskarabideak Nafarroako toponimiaren gainean duen eskumena eta eginkizuna Nafarroako administrazio publikoetan zeharkakotasunez betetze aldera ezarritako lan programari eta prozedurei buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Euskarabideak Nafarroako toponimiaren gainean duen eskumena eta eginkizuna Nafarroako administrazio publikoetan zeharkakotasunez betetze aldera ezarritako lan programari eta prozedurei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai taldeko parlamentari Paula Kasares andreak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Hezkuntza

Departamentuko Kontseilari jaunari ondoko galdera hau egin nahi dio:

Zioak

Euskarabidearen eskumen eta eginkizunen artean Foru Komunitateko toki-izenen gainean jardutea, indarra duten legeen arabera dago, 183/2007 Foru Dekretuak hala ezarrita.

Bertzalde, aipatu foru dekretuak bere xede orokorretan dio Euskarabidea bere eginkizunetan Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoetan zeharkakotasunez arituko dela.

Hori horrela, parlamentari honek ondoko galdera hau egin nahi dio kontseilari jaunari dagokion Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Zer lan programa eta prozedura ezarri ditu Euskarabideak Nafarroako toponimiaren gainean duen eskumen eta eginkizuna Nafarroako administrazio publikoetan zeharkakotasunez betetzeko?

Iruñean, 2008ko abenduaren 11

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, Nafarroako Gobernuak hartu edo hartuko dituen neurriei buruzkoa, Gipuzkoako Aldundiak iragarri baitu bidesaria jarriko duela N-1, A-15 eta N-121-A errepedetan.

JOSÉ MARÍA VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José María Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak hartu edo hartuko dituen neurriei buruzkoa, Gipuzkoako Aldundiak iragarri baitu bidesaria jarriko duela N-1, A-15 eta N-121-A errepedetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Zioak

Iragan otsailean Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat eztabaidatu zen Parlamentuko Osoko Bilku-

ran, Gipuzkoako Foru Aldundiak N-1 eta A-15 errepedetan bidesaria ezartzeko duen asmoari buruzkoa.

Duela gutxi, prentsaren bidez jakin dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak eusten diola errepide horiek erabiltzeagatik bidesaria ezartzeko asmoari. Hala ere, hasierako asmoari berrikuntza garrantzitsu bat gehitu zaio, zeina baita N-121-A errepedean ere bidesaria ezartzekoa.

Bestalde, jakina da N-121-A errepedea hobetzeko lanak lankidetzan egiten ari direla Nafarroako Foru Komunitatearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, eta horren adierazgarri da iragan azaroaren 18an obretara egindako bisita, ikusteko nola zabaltzen zen bi aldean artean Bidasoa ibaiaren gaineko zubi berriaren euskarri izanen den arkua. Zubi horrek balioko du bi lurraldeak era seguru eta errazagoan batzeko.

Galderaren testua

Ezagututa Nafarroako Parlamentuaren gehien-goaren iritzia, Nafarroako herritarrengan eragina izan dezakeen edozein bidesari ezartzearen aurkakoa, zer neurri hartu edo hartuko ditu Nafarroako Gobernuak, kontuan izanik Gipuzkoako Foru Aldundiak bere aldetik iragarri duela N-1, A-15 eta N-121-A errepedetan bidesaria ezartzeko asmoa?

Iruñean, 2008ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: José M.^a Vázquez Royo

Galdera, debekualdia ezarri ondotik amuarrain-populazioak izan duen bilakaerari buruzkoa.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, debekualdia ezarri ondotik amuarrain-populazioak izan duen bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatziko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako otsailaren 5eko 48/2008 Foru Aginduan, Nafarroako arrantzari buruzko arauak ezarri ziren urte horretarako; besteak beste, beharrezko berezia ezarri zen Nafarroako salmonidoentzako goi mailako eremuan amuarraina arrantzatze-ko.

Foru agindu hori eta gure erkidegoko ibaien egoera orokorra azaltzeko, kontseilari andreak joan den apirilaren 2an agerraldia egin zuen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean. Aipatu agerraldian, kontseilariak azaldu zuen nola funtzionatzen duen Nafarroako amuarrain populazioen jarraipena egiteko sareak.

Agerraldi hura egin zenetik sei hilabete baino gehiago igaro ondoren, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1.- Arrainkumeen jaiotzari eta azaleratzeari buruz azken bost urteotan, udaberrian, eginiko azterketen datu alderatuak, kontrol puntu bakoitzekoak.

2.- Populazioari eta populazioaren dentsitateari eta egiturari buruz azken bost urteotan, udan, eginiko azterketen datu alderatuak, kontrol puntu bakoitzekoak.

3.- Iragarri zen ubarroiaren populazioaren jarraipena eginen zela. Hori dela eta, jakin nahi dugu, departamentuak datu horiek baldin baditu, zein den hegazti honen bilakaera eta ea beharrezkotzat jotzen den populazioa kontrolatzeko neurriak hartzea.

4.- Zer balorazio egin du Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak datu horien guztien bilakaerari buruz?

Iruñean, 2008ko azaroaren 28an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

Galdera, Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan diren batasunaren intereseko lekuen kudeaketa-planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroak proposatuak ditu Europar Batasunaren intereseko 42 leku, hau da, 250.000 hektarea,

Natura 2000 sarearen barruan. Europar Batasunaren intereseko leku bakoitzerako berariazko kudeaketa plana prestatu behar da. Une honetan, kudeaketa planak Europar Batasunaren intereseko leku hauetarako bakarrik onetsi dira:

Orbaibarreko mendiak

Alduide mendia

Peñadil, Montecillo eta Monterrey

Ultzamako eta Basaburuako hariztiak

Urbasa eta Andia

1. Zein da Nafarroan diren Europar Batasunaren intereseko lekuen kudeaketa planen egoera?

2. Noizko egonen dira prest Europar Batasunaren intereseko lekuen kudeaketa planak? Zehaztu Europar Batasunaren intereseko lekuen eta kudeaketa planen amaiera egunaren arabera.

3. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Natura 2000 Sarearen barruan beste Europar Batasunaren intereseko lekuren bat proposatzeko edo sartzeko?

Iruñean, 2008ko abenduaren 9an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, 2009rako opera programazioaren gaineko koordinazio ezari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, 2009rako opera programazioaren gaineko koordinazio ezari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernu-ko Kultura Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

2009rako Nafarroako opera-programazioan

aurreikusita dago Nafarroan 30 eguneko tartean La Bohème eta Fausto antzeztea.

Zergatik ez dago inolako koordinaziorik Kultura eta Turismo Departamentuaren aldetik, halako gauzak gerta ez daitezen?

Iruñean, 2008ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Canal 4 Localia tokiko telebista ixteari buruzkoa.*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Canal 4 Localia tokiko telebista ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaión:

Zioen azalpena

Heldu den abenduaren 31n, eroslerik aurkitu ezean, Canal 4-Localia telebista katea, Iruñean eta Tuteran egoitzak dituen, itxi eginen da, 20 langile kalean utzita.

Nafarroako Gobernuak beti agertu du interesa Nafarroak tokiko telebistak izan ditzan eta, hala, azken urteotan era nabarmenean finantzatu ditu funtzionamenduan diren kateak.

Hori dela eta, galdera hauek aurkeztu dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

- Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Canal 4 Localia ixten bada, tokiko telebista honek duen administrazio-emakidari dagokionez?

- Ba al du asmorik telebista honentzako erosleak bilatzeko edo erosle bila ari al da, haren jarraipena bermatze aldera?

- Norbaitek tokiko telebista hau erosiko balu, Gobernuak langileen subrogazioa defendatuko al du, edota horren aldeko ekimenik abian jarriko al du?

Iruñean, 2008ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxoari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, 2009ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorretako “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galdera, PFEZari eta “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxoari buruzkoa:

2009ko aurrekontuetan, zehazki zein kontusailetara bideratuko da errenta aitortzearen “gizarte-intereseko beste xede batzuk” izeneko laukitxo markatzearen ondorioz biltzen den diru kopurua?

Iruñean, 2008ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Urrobi ibaiko urek bainurako duten kalitatearen gainean aurkeztu den 2007ko txostenari.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Urrobi ibaiko urek bainurako duten kalitatearen gainean aurkeztu den 2007ko txostenari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer iritzi duen Stavros Dimasen txostenari buruz eta Urrobi ibaian hartu beharreko neurriei buruz. Hona

hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

– Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du bainatzeko uren kalitateari buruz ingurumen komisario Stavros Dimasek aurkeztutako 2007ko txostena dela eta?

Bainatzeko uren kalitatea kudeatzeari buruz Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak 2006ko otsailaren 15ean emandako 2006/7/EE zuzentarauak, gure barneko zuzenbidera urriaren 11ko 1341/2007 Errege Dekretuaren bitartez aldatuak, bainatzea baimenduta dagoen eremuetan exijitu beharreko osasun-irizpideak arautzen ditu, bai eta ingurumenaren zainketa, babesa eta hobetzea ere. Bestalde haiek kontrolatzeko, sailkatzeko eta kudeatzeko eta haiei buruzko informazioa jendeari emateko gutxienezko xedapenak ezartzen ditu.

Nafarroan, direktibaren eta errege dekretuaren aplikazioaz Ingurumenaren eta Uraren Zuzendari-

tza Nagusia eta Osasun Publikoaren Institutua arduratzen dira, osasunaren eta ingurumenaren arloan dauzkaten eskumenez baliatuta.

Nafarroan, baimendutako 11 bainu-eremu daude; haien artean, Urrobi ibaia 1 deiturikoa dago; haren laginketa gunea, berriz, "Urrobi kanpina" da. Erroibarren dago: ES 2200092C31092A1 kodea (informazio nazionalako sistema) eta X 634654 eta 4759289 UTM koordenadak, 30. eremuan.

Laginketa gunean 2006. eta 2007. urteetan eginitako analisien emaitzaren arabera, uren kalitatea ez dator bat direktibak eta Errege Dekretuak eskatzen duten gutxienekoarekin. Horrenbestez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren azaroaren 16ko 00506/2007 Foru Aginduaren bidez, debekatu egin zen Urrobi ibaian bainatzea Aurizberriko kanpinaren ondoko tartean, Aurizberriko dermioan (Erroibar).

Geroan, Osasun zuzendari nagusiaren martxoaren 13ko 0575/2008 Ebazpenaren bitartez, Nafarroako Foru Komunitateko bainu-eremuen 2008rako hasierako zentsu ofiziala onetsi zen, eta baimena eman zen "Urrobi ibaia 1" bainu-eremuari, hain zuzen ere Erroibarko Udaleko Aurizberri herriko Urrobi kanpinean dagoena, hasierako zentsu ofizialean baja ematea.

Azkenik, adierazi beharra dago bainu eremuko zentsuaren baja, Bainatzeko Uren Informazio Sistema Nazionalan –Nayade– jaso zela, interne-

ten, Departamentuaren ekimenez, 2008ko martxoaren 17an, Sistemako administratzaile autonomikoak eta Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiak eskatuta.

– Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu Urrobi ibaiko uren kalitatea hobetzeko?

Urrobi ibaiaren kalitate mikrobiologikoaren arazoak lotuta daude ibaian gora dauden larre estentsiboekin, non abeltzaintzaren jarduera baitago. Hartu beharreko neurriak, berriz, nekez izanen dira bideragarriak, zeren eta eremu horretan garrantzi sozio-ekonomiko handia izan duen abeltzaintza tradizionala bertan behera uztea eskatzen baitute. Bestalde, neurri horiek ez dira nahitaez ezartzekoak, zeren eta bainatzeko eremua oso txikia baitzen, eta inguruetan bainatzeko beste leku batzuk baitaude.

Hala eta guztiz ere, Aurizberriko kontzejua da gai horretan eskuduna dena. Bainatzeko baimena eman ahal izateko, abeltzaintza jarduera deuseztatu beharko litzateke, eta erabaki hori, diogun bezala, kontzejua hartu beharko luke.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Barne Ministerioarekin sinatutako protokoloa, espetxe berria eraikitzeari buruzko asmoen gainekoa, ez bidaltzearen arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Barne Ministerioarekin sinatutako protokoloa, espetxe berria eraikitzeari buruzko asmoen gainekoa, ez bidaltzearen arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du espetxe berria eraikitze aldera Barne Ministerioarekin sinatutako protokoloari buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galderari dagokionez argitu behar da ezen bi entitatek, kasu honetan Nafarroako Gobernuak eta Barne Ministerioak, sinatutako asmo-protokolo bat horixe bera dela: asmoa adierazten duen agiri bat, zeinetan auzi jakin bat adostasunez lantzeko edo

kudeatzeko bi borondate azaltzen baitira. Agiri horiek, duten izaera dutelako, ez dira sartzen –esan gabe doa– Parlamentuko Erregelamenduko VIII. tituluan jasotako gaien artean. (Hortaz, nekez esan nezakeen agiri hori Legebiltzarrerara ekartzeko konpromisoa hartzen nuela, eta, hori hala dela egiaztatzeko, bilkuraren transkripzioa irakurri besterik ez dago).

Eta auziari –gaiaren muinari– dagokionez, Legebiltzarrean ekainaren 26an egin nuen agerraldian esandakoa berresten dut; orduan, galdera idatzi hau egin duen parlamentariari erantzunez gogora ekarri nuen parlamentu-taldeak 2005ean ados jarri zirela Iruñeko espetxe berria Santa Luzi-

an jartzeaz denaz bezainbatean, eta adierazi nuen ezen, betiere, Estatuko administrazioari dagokiola ekimena eta kasuan kasuko proiektua sustatzea nahiz aplikatzekoak diren lege-manuak zaintzea, hala orokorrak nola ingurumen arlokoak. Eta, zalantzarik ez dut, horrela egingen du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Azagrako saihebidia eraikitzekeo prozesua.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko zein egoeratan dagoen Azagrako saihebidia eraikitzekeo prozesua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 27ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Azagrako saihebideari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Hona egindako administrazio-izapideak:

1) Nafarroako Gobernuaren 2006ko urtarrilaren 9ko erabaki bidez, “NA-134 errepedeko –Ebro ibaiko ardatza– Mendabia, Lodosa, Andosilla, Azagra, Milagro, Valtierra eta Arguedasko saihebidetarako buruzko informazio azterlana” udalez gaindikoa proiektu sektorial deklaratu zen. Era berean, jendaurrean jarri zen eta ukitutako udalei entzualdia eskaini zitzaizkien, Lurraldearen antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko

35/2002 Foru Legeak ezarritako ondorioetarako eta baita Ingurumen Eraginaren Ebaluazio prozeduraren ondorioetarako, eta lehendabiziko aukeraren aldeko hautua egin zen, balioetsiena zelako.

2) Gobernuaren 2007ko maiatzaren 28ko erabaki bidez, “NA-134 errepedeko –Ebro ibaiko ardatza– Mendabia, Lodosa, Andosilla, Azagra, Milagro, Valtierra eta Arguedaseko saihebidetarako udalez gaindikoa proiektu sektoriala” onetsi zen..

Azagrako saihebideari dagokionez, erabakiak ondokoa dio:

“1. Erabaki honen zioetan azaldutakoaren araba ebaztea aurkeztu diren alegazioak.

2. Onestea “NA-134 errepedeko –Ebro ibaiko ardatza– Mendabia, Lodosa, Andosilla, Azagra, Milagro, Valtierra eta Arguedaseko saihebidetarako udalez gaindikoa proiektu sektoriala,” Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak sustatua, salbu eta Azagrako saihebideari dagokiona, erabaki honen zioetako II. atalean proposatutako aukerekin bat.

5. Behin ingurumen-eraginari buruzko kasuko azterlanak jaso ondotik –bereziki hidraulikoak, 1. aukerakoak– eta kasuan kasuko konponbide eta neurri zuzentzaileak garatu ondotik hartuko da Azagrako saihebideari buruzko erabakia, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiaren txostena jaso eta Ingurumen Eraginaren Deklarazioa egin eta gero. Kasu honetan, aukera

horren diseinua berrikusiko da, herritik gertuago jartze aldera, eta horrek ez dio eraginen orain dela gutxi eraiki den araztegiari.

Erabaki horretan aurreikusitakoa betetze aldera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak azterlan hidrauliko bat igorri dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuari, Ingurumen Eraginen Deklarazioa egin dadin. Azterlana Ebroko Konfederazio Hidrografikoari ere igorri zaio, baimena eman dezan, Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat.

Zenbait bilera egin eta proiektua doitu ondoren, bi erakunde horiek proiektua baimentzeko eragozpenak jarri dituzte, eta Ebro ibaiaren alubioi-ordokitik igaroko ez den aukera baten alde egin dute.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, jakiteko zein egoeratan dagoen Mendabiako saihesbidea eraikitzekeo prozesua.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du jakiteko zein egoeratan dagoen Mendabiako saihesbidea eraikitzekeo prozesua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 27ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Mendabiako saihesbideari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren abenduaren 19ko 152/2007 Foru Aginduaren bidez behin-behinekoz onetsi zen "NA-134 errepidetako, Ebro ibaiko ardatza, Mendabiako saihesbidea eraikitzekeo proiektua", jendaurrean jarri zen ukitutako ondasunen eta eskubideen zerrenda eta entzunaldia eman zitzaion toki entitateari.

10 alegazio jaso dira guztira prozesu horretan. Horiek aztertuta eta, bidezkoa zenean, aintzat hartuta, kasuko eraikitze-proiektua prestatzen ari gara.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, enpresa pribatuek kudeatzen dituzten udal zahar-etxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du enpresa pribatuek kudeatzen dituzten udal zahar-etxeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du enpresa pribatuek kudeatutako udalen zahar-etxeei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak informazioa eskatu du Grupo Gestión Social enpresari buruz, zeinak udal titulartasuneko zenbait zahar-etxe kudeatzen baititu, enpresa horrek kudeatutako zahar-etxeetako tarifak igo egin direlako 2006an, 2007an eta 2008an. Informazio hori emateko xedez, ondoko taula prestatu dugu:

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Kontseilaria: María Isabel García Malo

	2006ko prezioak		2007ko prezioak		2008ko prezioak	
	Baliatzen direnena	Mendekotasuna dutenena	Baliatzen direnena	Mendekotasuna dutenena	Baliatzen direnena	Mendekotasuna dutenena
Lodosako zahar-etxea	808,86	1.406,96	1.000,00	1.463,24	1.042,00	1.524,70
Igoera			23,63%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea			191,14	56,28	42,00	61,46
Mendabiako zahar-etxea	866,93	1.374,15	1.000,00	1.429,12	1.042,00	1.489,14
Igoera			15,35%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea			133,07	54,97	42,00	60,02
Andosillako zahar-etxea	866,93	1.374,15	1.000,00	1.429,12	1.042,00	1.489,14
Igoera			15,35%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea			133,07	54,97	42,00	60,02
Caparrosoko zahar-etxea	866,93	1.374,15	901,61	1.429,12	939,48	1.489,14
Igoera			4,00%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea			34,68	54,97	37,87	60,02
San Martin Unxeko zahar-etxea	866,93	1.374,15	901,61	1.429,12	939,48	1.489,14
Igoera			4,00%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea			34,68	54,97	37,87	60,02
Zarrakazteluko zahar-etxea	866,93	1.374,15	901,61	1.429,12	939,48	1.489,14
Igoera			4,00%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea			34,68	54,97	37,87	60,02

	2006ko prezioak		2007ko prezioak		2008ko prezioak	
	Baliatzen direnena	Mendekotasuna dutenena	Baliatzen direnena	Mendekotasuna dutenena	Baliatzen direnena	Mendekotasuna dutenena
Martzillako zahar-etxea	866,93	1.374,15	901,61	1.429,12	939,48	1.489,14
Igoera			4,00%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea			34,68	54,97	37,87	60,02
Kasedako zahar-etxea	866,93	1.374,15	901,61	1.429,12	939,48	1.489,14
Igoera			4,00%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea			34,68	54,97	37,87	60,02
Otsagabiko zahar-etxea			900	1.300,00	937,8	1354,6
Igoera					4,20%	4,20%
Aldea					37,8	54,60
Carmen Bellido Fundazioa	768,29	1.396,94	807,00	1.467,00	807,00	1.467,00
Igoera			5,04%	5,02%	0,00%	0,00%
Aldea			38,71	70,06	0	0

	2006			2007			2008	
	Arina	Neurritzkoa	Larria	Arina	Neurritzkoa	Larria	Neurritzkoa	Larria
San Adriángo zahar-etxea	1.805,79	1.968,77	2.071,65	1.878,02	2.047,52	2.154,52	2.133,52	2.245,01
Igoera				4,00%	4,00%	4,00%	4,20%	4,20%
Aldea				72,23	78,75	82,87	86	90,49

Galdera, Menpekotasunari buruzko legearen aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Menpekotasunari buruzko legearen aplikazioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Menpekotasunaren Legearen aplikazioari

buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak, Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen kariatara, informazioa eskatu du balorazioa egin zaien pertsona kopuruari buruz eta laguntza ekonomikoa jasotzen duten pertsona kopuruari buruz.

Horri dagokionez adierazi beharra dago ezen, 2008ko maiatzaren 31ra bitarte, 13.305 pertsonari egin zitzaizela balorazioa, eta horietako 4.985 sailkatu zirela mendekotasun handikotzat, eta 2.100, berriz, 2. mailako mendekotasun larrikotzat.

Balorazioaren ondoriozko laguntza ekonomiko jasotzeari dagokionez, berriz, kontuan hartu

behar da 1. mailako mendekotasun larrikoak familia-ingurunean zaintzeko ere ematen dela laguntza ekonomikoa Nafarroan. Data horretan, 1.790 pertsona zeuden maila horretan sailkatuta. Datu hori kontuan hartuta esan daiteke ezen, gaur arte,

mendekotasuna duten 7.299 pertsonak jaso dutela laguntza ekonomikoa.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Murchanten kiroldegi bat eraikitzeko laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Murchanten kiroldegi bat eraikitzeko laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Murchanteko kiroldegia eraikitzeko laguntzei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen abuztuaren 8ko 488/2005 Ebazpenaren bidez 775.000 euroko dirulaguntza eman zitzaion Murchanteko Udalarari, kiroldegi bat eraikitzeko. Aurrekontua 3.785.704 eurokoa zen, eta gastua hiru ekitaldi ekonomikotatik egitekoa zen: 199.468 euro 2005eko ekitaldian, 354.624 euro 2006koan eta 220.908 euro, azkenik, 2007koan.

Ebazpen hori eman zen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren otsailaren 28ko 27/2005 Foru Agindua aplikatzeko, zeinaren bidez arautu baitzen toki entitateentzako dirulaguntzen kasuko deialdia.

Foru agindu horretan ezarritakoarekin bat, 2005eko ekitaldiko 199.468 euroak aurrerakin gisa ordaintzea onetsi zen Nafarroako Kirol eta Gazte-

riaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen abenduaren 23ko 800/2005 Ebazpenaren bidez.

Urtarrilaren 18ko 52/2007 Ebazpenaren bidez, berriz, Murchanteko Udalarari, aurrerakin gisa, 2006ko ekitaldiko 354.624 euroak ordaintzea onetsi zen, 2006ko gastuen aurrekontura ordaindu ere.

Ebazpen horren bidez, Murchanteko Udala premiatu zen agiri jakin batzuk aurkez zitzaizkan 2007ko uztailaren 31 baino lehen, baina ez zenez halakorik gertatu egiteke dago 2007ko ekitaldiko 220.908 euroko azken ordainketa.

Jasotako laguntzen kudeaketari dagokionez, berriz, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak, laguntzak ematen diren beste edozein kasutan legez, onuradunari exijituko dio jasotako dirua behar bezala erabil dezan eta justifika dezan, kasuko laguntzaren oinarriak ezarri zituen deialdian eskatutakoarekin bat.

Horri buruz esan beharra dago ezen, bete gabeko obra diruz lagunduak dituzten beste toki entitate batzuen kasuan legez, Murchanteko Udalarari eskatu zaiola aurreikusitako inbertsioa justifika dezan eta obra 2008an egiteko konpromisoa har dezan.

Eskaera horri erantzunez, Murchanteko Udalarari, alkatearen 2008ko martxoaren 5eko idazki baten bidez, udal kiroldegiko obra eta inbertsioa, gutxienez ere 1.500.000 eurokoa, 2008an egiteko konpromisoa helarazi zuen. Dirulaguntza emateko foru aginduarekin bat, 2008ko abenduaren 20a baino lehen justifikatu beharko da.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	